

Juana Gereñu Azarola

*Segura,
Gipuzkoa
(1923-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Juana Segurako Lastala baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa eta ama berriz Itsasokoa. Zazpi senideetan gazteena, baserrian lan asko egin zuen. Hogeita bat urte zituela ezkondu egin zen. Segurako kontu ugari kontatu zizkigun elkarrizketan.

Zintak

SEG-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar

- **Data:** 2011-12-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

SEG-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-12-02
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Etxeko txikiena izan arren, lan asko egin behar

- **Erref:** SEG-008/003
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:01:07. **Bukatu:** 00:03:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Etxeko senide gazteena zen. Gerra iritsi zenean, anaiak gerrara joan ziren, eta lan asko egitea tokatu zitzaion Juanari. Lehen igitaiarekin bildu behar izaten zuten garoa; debekatuta zegoen sega erabiltzea. Garotara nora joaten ziren azaltzen du. Garoa ganaduaarentzat izaten zen.</p>

Transkripzioa

-Zenbat señide ziñeten?
 -Gu zazpi
 -Zazpi.
 -Gaztena ni
 -Gaztena zu e?
 -Bai gaztena ni, bakarrik, bakarrik bizi naiz.
 -A, bestek [...]
 -Senidetan bai danak bai bai bai.
 -Eta gaztena ze beti mimatuna dala esatea...
 -Bai, baiño okerre. Zeatio nik e, gerra irten zan garaian hamalau urte neuzken, eta anaiak danak e soldadu eaman zittuen, ta hamalau urtekin aittek, aitte, aitte bakarrik lana itteko ta ni haren atzeti, zeati beste ahizpa, e, zan hura, gaixotasune pasau zon ta beti debillago eoten zan, eta esan diana, mimosokeri gutxi gutxi izan det nik.
 -Bai, ez?
 -Lana in bihar izan det nik, e. Ni gure gurasok, aitte zanak e, garoa ekartzen zan garai hartan e, baserrita, eta zazpi, zortzi urte bete be eaman nittun e, mendia, lapikoi kaso ittea. Ta lapikoi kaso in ta gero ahal danen, e, hola, ta garoa ta, ittaie ez dakit, badakizun, ez dezu jakingo zuk zer dan. Ittaie da, eskuz ebai beharrekoa. Zeatio garai hartan ez zuen amititzen e segaik hola, aitzen die ba baserritan.
 -Bai.
 -Hori ez zuen ametitzen.
 -Ez zuen ametitzen?

-Ametitzen lehenbiziko eunetan ta.
 -Zeatio, gehiegi mozten zulako harek o?
 -Ez dakit ba zeatio esan.
 -Ya.
 -Ez, ta dana ittaiekin, ittaie da holako katxarro bat, kirten txiki batekin ta holaxe, ar, zea bat daukena. Ta harekin, ta aitte zanak jarri zien, e, babarruna eosteko, zea, lapiko baten preparauta ta, harei kaso iñez, garo mordo bat ein nun nik, zazpi zortzi urtekin. Uaingo umek eamango nittuzke nik hola. Gure bizimodue holaxe izan da. Ta aste guztin etorri be etxea e.
 -Aste guztin?
 -Ya geroxogon, baiño ordun bai baiño, geroxogon, aste guztin etorri be eoten nitzen ni.
 -Hoi garota junda?
 -Garota junda.
 -Eta noa joten ziñeten ba?
 -Hor, Zeamati gora. Zeamati gora dau e, ta uain iñok ez du hartzen garoik handik.
 -Ez.
 -Uain dana bestela dare preparauta, baserritan e ximaurrek eta zeak baiño ordun garota behar zan.
 -Ta garoa zertako zan?
 -E, ximaurre zea ganauek itten zuen garaien lokatzen ez egoteatio. Ta uain itten due, porlanakin botata dare ta udekin garbittu ta dana garbi garbi baiño ordun holako adelantuik, diruik ez zeon ta!
 -Karo!
 -Diruik nola ez zeon... Hola ibiltzen giñen ni.

2. Ohean lo; eta mikeleteak

- **Erref:** SEG-008/004
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:49. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

<p>Beti ohean egin izan du lo; baina, garai hartan, hori ez zen erabat arrunta. Mikeleteak zer ziren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Ta nun iten zenduen lo ta?
 -E nik beti ohian. Han e etxe bat bazan, Mikelete esaten giñun, Mikelete badakizu zein, ez dakizu? Uain e guarda sillek bezela, horik eote zien mikeletek txapel gorrikin ta ibiltzen zien. Jantzie eukitzen zuen kaki kolorekoa, ta txapel gorrikin ibiltzen zien. Ta horik e eukitzen zuen, uain ertzainak bezela o estilo horta. Eta hak e han e eurikin, e, Izalgo kamiño hortan uain botata dao baiño hor'e bazan e [...] ta han lo itten nun lehendabizi. Ta gero hak desaparezzitu zienen taberna. Nik beti ohian ein det lo, hori bai hori bai. Gero o a e, estelak o gizakuman jendek pajarrean itten zuen, garoa ta zea botata. A, halaxe ohittutako personea naiz ni.
 -Bai ba, eta mikeletek bertan zeren zuk han lo iten zenunen, mikeletek?
 -Mikeletea zan hango nausi, nausie, familie zeuken ta, harek'e lana ein behar zun garaien aparteko etxea han zeuken ere. Etxe, Hotzarte jakingo

dezu ba, ba Hotzartekoa.

-A!

-Hotzarten'e hantxe kamionero etxea dau, baiño hura baiño beherago zan, ta gero bota in zuen, ya familie ya gastau in zan, ta gero ezkondu, ezkondu're bai batzuk eta ezkondu ezkeo bakizu, etxea sobrate izaten da ta. Baiño beran lana han etxe, Etxegarateko o Hotzarteko tabernen ondon itten zon lana, itten zuen. Ta gero hak'e gastau zienen, ba ohian beste tabernan. Holaxe izan da gure.

3. Sororako zakuak, eta soineko gorria jantztearen arriskua

- **Erref:** SEG-008/005
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Baserrian aitarekin batera aritzen zen lanean; orduko zereginak aipatzen ditu. Lehen hotz handia egin arren, arropa ez zen hartarako egokia izaten. Soroko lanetan zebiltzala, zakua erabiltzen zuten euritik babesteko. Gerra garaian, soineko gorri bat jantzita izateagatik, komeriak izan zituzten.</p>

Transkripzioa

-Ta ze lan gehio gogoratzen dezu iten zenuela?

-Guk, baserrin ba baserriñ e aittekin batea ba, oain e ez da itten garik eta hola, baiño a goldan idikin itten zan ordun, uain tratorea dau, ta idikin itten zan ordun ta haren atzetik goldek botatzen zona, hura atxurtu, garie eitteko, hala ibiltzen giñen, ta egualdie, uain baiño txarragoa iten zittun izotzak eta lana iteko, baiño eskuk holaxe in, ta [...].

-Ta erropa ta're ez zan izango uingua bezelakua?

-Erropak e, guk e, e holako botak eta ene, abarka xaharrak, abarka batzuk, abarkak izaten giñun, zapatan estilokok baiña abarka batzuk izaten zien. Bai, ta hakintxe ta ezta gaiñea jantzik'e holako zeaik ez, zakue, burutik hartu eudie balin bazan zakue hartu, ta zakue hartu burutik eta hura.

-Ta ze iten zeniez zulon bat zakui o?

-Ez, hori, [...] nola esango det. Hau da zakue ezta? Zakue hau da, e? [...] ta zakuei buelta, honei eitten diozu zea bat, zulo bat bezela eukitzen do beheraka eukitzen do ta, hura, hura hartu burutik, bai.

-Hala ibiltzen ziñeten?

-Hala ibiltzen giñen, eudie balin bazan e soroa jun behar bagendun arbie ekarri o gure aitatea hura jantzi ta beste, beste jantzik ez zeon, uain bezelako e zamarraik eta holako gauzaik, keba keba keba. Abrigoa bai, ni abrigokin ibiltzen nitzen, baiño azpitik uain bezela, gona lodik eta hola ez e, ta holako jerseik eta e, udaran ibilitako soinokoa, abrigon azpitik jantzi ta [...]. Hala izaten zan orduko e gurea. Klaro nik e, gerra irten zan garaien e akordatzen naiz e ze, guk bazkaria itten gendun e, zan Julion, "veinticinco de Julio" festa itten zan Seguran, eta genden e kanpon e familikok etorri zai eta, gure etxen frenten taberna bat dau e zan, kamiño ondon, eta genden ni soiñoko gorri batzuk, hemen uain e hilda dao baiño koiñata zan, ta harek eindakok, eta karo ordun zan gerrea, orduntxe pasau zan, eta bakarren batzuk e, ordun gorrie ta hola izaten zan, ta gorrikiñ neolako tiro bat botatzea omen zijozten, han tabernakok esan ezetz, kanpoko jendea

zeola han e bazkaltzeko zai, eta hala geldittutakok.
-Eta gorriz jazteagatik e?
-Bai, soiñeko gorrikin gendelako, bai, bai, holaxen izaten zien gauzak garai hartan.
-Ya ya ya.

4. Nazionalistak herritik bidali zituztenekoa

- **Erref:** SEG-008/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, nazionalista izateagatik, hainbat lagun herritik bidali zituzten; bazihoazela, burla handiak egin zizkieten.

5. Etxeko nagusiaren joera politikoaren mende

- **Erref:** SEG-008/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:10:33. **Bukatu:** 00:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Herrian hainbat lagun atxilotu zituzten gerra garaian. Koinatua libratu egin zen kartzelatik, bere etxeari esker. Izan ere, etxeko nagusiaren joera politikoaren mende egoten ziren bertan bizi ziren bizilagunak.

6. Kartzela, nagusiak eta lapurretak

- **Erref:** SEG-008/009
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Zurbano zen etxeko nagusia, eta harengana joaten ziren errenta ordaintzera. Hura karlista zenez, kartzelatik libratu zen Juanaren familia. Gerran, lapurreta handiak egon ziren.

7. Soldaduak herrian, eta herritarrek mezan

- **Erref:** SEG-008/010
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:16:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Gerra garaian, militarrek etorri ziren Segurara. Soldadu asko ibili ziren herrian, bertakoak balira bezalaxe. Lehen, meza goizeko 06:30ean izaten zen, eta baserrietatik ere ordu horretarako etortzen zen jendea. Baserritik herrira joateko, bide txarrak zeuden.</p>

8. Bidean bustitako arroparekiko maistrak hartzen zuen ardura

- **Erref:** SEG-008/011
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:16:54. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan zebiltzala, baserritik etortzeko bidea oso txarra zenez, maistra ondo arduratzen zen umeei bidean zikindutako edo bustitako arropa lehortzeaz.

9. Lehengo sendabelarrak eta medikuak

- **Erref:** SEG-008/014
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:22:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Guraso jatorrak zeuzkaten. Sutondoan elkartzen ziren kontu-kontari. Behin, hanka erre zuen Juanak beheko suan. Mutiloko baserri batean egiten zuten sendabelarrari esker, berehala osatu zen. Lehen medikua etxera joaten zen, haren beharra izanez gero.

10. Segurako hainbat gazte eraman zituen gerrak

- **Erref:** SEG-008/015
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:22:06. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Anaia gerran hil zen, 21 urte zituela. Segurako 27 gazte hil ziren gerran. Elizaren atarian urte askoan egon zen haien oroimenean jarritako kartela. Juanaren bi anaia desagertu ziren gerran. Anaia bat nola hil zen azaltzen du.

11. Arropa garbitzeko egin beharrekoak lehen

- **Erref:** SEG-008/016
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lehen arropa eta izarak nola eta noiz garbitzen zituzten azaltzen du. Sutako hautsa ur berotan sartuta ona izaten zen arropa garbitzeko.

12. Errekara, arropa buru gainean zutela

- **Erref:** SEG-008/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa buru gainean eramaten zuten erre kara, garbitzeko. Arropa nola antolatzen zuten azaltzen du.

13. Arropa tindatzeko ohitura handia

- **Erref:** SEG-008/020
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Arropa tindatu egiten zuten lehen, askotan; izan ere, garbitzearen poderioz, kolorea higatu egiten zen. Arropa nola tindatzen den azaltzen du.

14. Abrigoak jostunak egiten zizkien

- **Erref:** SEG-008/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehen, abrigoak egin egiten zituzten. Koinata oso jostun ona zen; eta

zertzelada batzuekin, ondo ulertzen zuen zer eratako abrigoa eskatzen zitzaion.

15. Modak eta jostunaren aldizkariak

- **Erref:** SEG-008/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:34:52. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Orduko moda nolakoa zen aipatzen du. Garai batean, lasaiera handiko abrigoak egon ziren modan; baina, horretarako, dirua behar zen. Jostunek modako aldizkariak izaten zituzten handik ideiak ateratzeko.

16. Josten ikasten aritu zenekoa

- **Erref:** SEG-008/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Juana josten ikasten aritu zen koinatarekin. Josteko teknikak eta pausoak aipatzen ditu.

17. Beti euskara erabili izan du

- **Erref:** SEG-008/025
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:42:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan ibili zen 10 urte izan zituen arte. Orduko maistra gogoan du. Euskaraz ikasten zuten. Behin trenean arreta eman zieten euskaraz hitz egiteagatik. Juanak beti euskara erabili izan du. Erdara nola ikasi zuen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Eskola're jun ziñen ez?
-Bai, bai, hamar urte arte eskola.
-Hamar urte arte?
-Hamar urte arten bai.
-Ta ze, sei urtetik o hola o?
-Ez dakit nik zenbat urte eukiko giñutzen, guk e gendun bat e, maistrea oso ona, lehendabizi mojan ibili giñen, ta gero maistrek, ta maistrek e,

zan Bergarakoa, eta harek e oso ondo, eskolea're bai ta josten ta bordaketan ta, bai.

-Ta euskeraz emate al zenduen o erderaz?

-Euskeraz, euskerea guk, guk euskereako, beti euskerea izan deu guk e, guk e, ni akordatzen naiz, gero behintzat trene giñozela, trenen zai Donostia, nik Donostin izeba neuken ta ahizpak eta're han neskame eon zien, eta eun baten e, e, hola bagiñotzen ta euskeraz jungo giñen trenen ta gizakuma batek esan ziun "oiga, habla usted...".

-“Castellano”?

-E... nola esan ziun, “como las personas” eo eztatit, hola muz esan ziun [...], pentsau nun esatea're “estamos hablando como es debido” esan behar giñun ondo biren, baiño ez giñon kasoik in. Ta gero beste gizakuma batek esan zien e “zu betik [...] garaien euskerea, euskeraz in, kontestatzen ez badizue, ordun ia tira, baiño beti, beti euskeraz, guk beti euskerea ibili deu, guk, guk hemen e erdereia ikasi genduna laun bat gendun, dakau oindio, residentzin dao gaiña, eta harekin ikasitako erdereia deu guk gehiena.

-Ta nungoa zan ba bea?

-Hamengoa, Segurakoa zan, baserri batekoa, kamiñon ondo ondon dau, neska zaharra da.

-Ta harekin zeba iten zenduen?

-Harekin, zeuzken bizilagunak eta erdaldunek, etortzen zitzaien kanpotik, ta haiekin batea gehio're zean iten zittun e, kanpokori, ta hak erderaz itten zuen, ta handikan ta guk beste gaiñentzekun, kanpoa ez gea irten ta, nik e hamen ikasitako erdereia dauket.

-Karo!

18. Plazan dantzán, gustura

- **Erref:** SEG-008/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:49:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Gaztetan, jaietan, plazan aritzen ziren dantzán. Garizuman ezin izaten zen dantzatu. Orduko komeriak aipatzen ditu. Gazte garaian ondo pasa zuten. Orduko musika.</p>

Transkripzioa

-Ta gero esaten dezu hori, gaztetan hemen ibiltzen ziñetela plazan?

-Bai, e, jaietan, Garizuman ez zuen ematen ordun ta.

-Garizuman ez?

-Garizuman ez. Bio bestela plazan e, e zea in ta haimarik jotzen zuen garaian e ya etxea, korroa ein, korroa juntatzaten giñen kuadrilla haundi bat, ta danak korroa ein, bueltan ta, hala bakoitza bereta, mutille bagendun e, mutillekin ta bestela berriz, gustokoa bagendun ta gustokoa ez bagendun, korrikan ihes eitten giñun, hola, holaxe.

-Bai e, ez balin bazenuen...

-E, fu fuera fuera fuera fuera.

-Eta neska launtzen beti mutil berdiña eukitzen zenduen eo?

-A, segun, segun, segun. E, ni neu ez naiz izan hainbesteaiñoko horietakoa, ez, ez, ez, ez, batzuk bezela ez naiz izan, baiño, ondo pasau deu guk egie

esan gure gazte denborea ondo pasau deu.
-Eta ze jotzen zon hemen? ttunttunak o...
-Bai txitukin, txistue, txistue tanboliñe ta, hala izaten zan, festatako San Juanetan bakarrik e beste soiñue eo hola ordun e lkatza ta bazien hemen soiñujolek, filarmonikakin ta jotzen zuena, oso onak zienak.
-A bai e, soiñua ta filarmonika.
-Filarmonikak'e bai, bi o hiru filarmonikakin, bi o behintzet bai, eta beste batzuk e danborra're jotzen zuen ta beste batzuk, hak onak zien Tolosakok o lkatza ta oso onak zien.
-Beittu.
-Oso, bai, bai.

19. Musikarekin jendea kontrolatu ahal izango zutelakoan...

- **Erref:** SEG-008/031
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:49:34. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Dantza lotua egiten zuten, baina, behin, zigor gisa, beste musika estilo bat ekarri zuten Segurara. Orduan, gazteek protesta egin zuten, eta abesti guztiak lotuta dantzatu zituzten.</p>

Transkripzioa

-Eta agarrauan hemen ittea ba al zeon, Seguran?
-Bai, bai, ta baten holaxe e agarrauen ein gendulako hurrengo San Juanetan ez ziguen ekarri zeaik, musika hori.
-A bai?
-Eta, bueno, eta ekarri zittuen galle, zea gaiterok, "Estella, gaiteros de Estella", eta hala, ta alkar hartu gendun, ta esan gendun "bueno suelton bat ere ez, ein behar deu e danok agarraue, danak agarrauen, jotzen duena jotzen duela". Gehio ez zuen ekarri gaiteroik! [...] aizu, gazte denboran, han baltseon iñatio ze pekatu ingo zan ba!
-Bai ba.
-Ta zenbait eta hobeto in baltseoa hura nahiago. Baiño halakoxek zien.
-E eta hori in zizuen e San Juan batzutan?
-San Juan bai.
-Agarrauen iteati?
-Agarrauen in gendulako aurreko urten agarrauen in gendulako hurrengo urten gaiterok ekarri zittuen.
-Ta hori alkatek esan zun? Hala izan behar zula?
-A, jendea kejau zalako, alkatei esan ingo zien.
-Ta zein kejau zan ba?
-Bakizu!

20. Misioetan, neskazarren aurka

- **Erref:** SEG-008/034
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:53:13. **Bukatu:** 00:54:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak

Laburpena:

Misioetan, behin neskazarrei buruz izugarriak esan zituzten. Neskazarriak orduan negarrez, eta gazteak barrez. Orduko sermoiak oso gogorak izaten ziren.

21. Bonbardaketak eta tiroak Seguran

- **Erref:** SEG-008/039
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:58:36. **Bukatu:** 01:01:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian bonbardaketak izan ziren Seguran. Jende askok baserritik alde egin behar izan zuen; baina beraiek ez ziren inora joan. Leihoetan, koltxoak jartzen ziren tiroetatik babesteko. Sukaldean egoten ziren, tiro-hotsak entzuten zituzten bitartean. Orduko oroitzapenak kontatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com